



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

II. ERANSKINA

EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

A) Onuradunen gaitasun ekonomikoa kalkulatzea

Gaitasun ekonomikoa kalkulatu da ondoko balorazio elementuen arabera: Errenta eta onuradun kopurua

1. Errenta barruan bilduko dira familia unitateko sarrera garbi guztiak eta/edo ondoko zerbitzuen onuradun diren pertsonenak:

a) Lan etekinak, pentsio eta gizarte aurreikuspenetarako prestazioak, erregimena edozein delarik ere.

- Higigarrien kapitala eta higiezinena

- Enpresa edo lan jardueren etekinak

b) Ondarea: Elkarbizitza unitatea osatzen duen pertsonen kapital higigarri eta higiezin osoa

Ondore hauetarako elkarbizitza unitatea osatzen dute helbide berean bizi diren ondoko pertsonak:

- Eskatzailea

- Ezkontidea edota antzeko harreman pertsonal iraunkorra izateagatik eskatzaileari lotuta dagoen pertsona

- - Sarrerarik ez duten 18 urtetik beherakoak

- Bizkaiko Foru Aldundiko "EVO"-ak ezgaitutzat aitortu dituen 18 urtetik gorakoak

2.- Kenkariak:

Ondoko kenkari eta irizpide osagarriak ezartzen dira:

a) %65 edo gehiagoko minusbaliotasun egiaztagiria duten pertsonak eta Menpekotasun Handiko III. maila baloratuta duten pertsonak, 1 eta 2. mailak: hilero 60 €pertsonako.

Familia Unitate berdinean, kontzeptu honengatik gehienez ere 1.440 €deduzitu daitezke.

b) Ohiko etxebizitza alokatzeagatiko gastuak Gastuaren %70a deduzituko da, 2008. urterako gehienez ere 3.480 € deduzitu ahal izango direlarik. Urtero eguneratuko da dagokion ordenantza fiskalak ezarritakoaren arabera.

c) Etxebizitza edo ohiko ostatua eskuratzeko hartutako kredituen interesak eta amortizazioa. Gastuaren %70a deduzituko da, 2008. urterako gehienez ere 3.480 €

B) Erabiltzailearen ekarpenaren zenbatekoa finkatzea.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

Etkez etxeko laguntza zerbitzuaren onuradunek, jasotzen duten zerbitzuaren finantziazioan parte hartuko dute, A) atalean ezarritako gaitasun ekonomikoaren arabera eta ekarpenaren muga zerbitzuaren benetako kostua izango delarik. Ondoko formula jarraituko da:

$$\frac{\{(urteko sarrerak 1FU/12)-(2 indarrean dagoen hilabeteko FU-ko kideen arabera)\} \times 15}{100} = E$$

$$Ex1 + \frac{\text{hileroko FUan emandako ordu kopuru osoa}}{100} = \text{Hileroko ekarpena}$$

$$\frac{\text{Hileroko ekarpena}}{\text{Hileroko egindako ordu kopurua}} = \text{Batazbesteko prezioa ohiko ordu baterako}$$

1FU: Familia Unitatea
2OE: Oinarrizko Errenta

Formula honek etkez etxeko laguntza zerbitzuarengatik Familia Unitatearen ekarpen ekonomikoa ezartzen du. Ezingo da inoiz zerbitzuaren kostua baino handiagoa izan eta ezta hileroko 10 euro baino txikiagoa ere. Ekarpen ekonomiko hori urtero eguneratuko da dagokion Ordenantza Fiskalak ezarritakoari jarraituz, Araudi honetako 22. art. an zehaztutakoaren arabera.